

HIZKUNTZAREN HABEARI ATXIKIA

36ko gerra osteko abertzaletasunaren piztualdi eraberrituan giltzarri izan zen Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegi'-ren ahotsa; dei egin zuen euskara eta nazioaren ideia irmoki lotzera, hitzez eta ekintzez. Ukaezina da hark lagatako lorratza: zuztarduna.

Aranbxa Iraola

Eztabaida bizirik dago, lehen bezala orain. *Lehen diogunean*, 50eko hamarkadatik gaur egunerako epea hartu nahi dugu, hain zuzen garai hartan izan zelako gaur arte iraun duen eta, ziu-rrenik, diskurtso abertzaleak izan duen aldaketarik nabarmenena: ordura arteko nazionalismoan arrazaren ideia sabindarrak zuten zentralitatea euskarak ordezkatu zuenean. Hori da Txillardegi -asko sinplifikatuz, jakina-, hori da Ekin-ETA mugimenduarien

ekarpen nagusietako bat». Lorea Agirre *Jakin* aldizkariako zuzendariak Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi-ren (1929-2012, Donostia) pentsamoldeari egin dio erreferentzia asteon *Euskara, estatugintza eta naziogintzaren erdian* jardunaldiñ aurkezpenean. Ostegunean eta ostiralean egingo dira jardunaldiok. Iruñean, UEU Udako Euskal Unibertsitateak eta Jakin Fundazioak elkarlanean antolatuta. Atariko gisa, *Jakin* aldizkariak 208. zenbakia aurkeztu du asteon *Herria, nazioa, estatua... eta euskarakerkin zer?* izenburupean.

Txillardegiren pentsamenduarien ezaugarri argientakoa da,

hain justu, euskal naziotasuna eta euskara era bereizezinean lotzea. Eztabaida ezina da horrek euskal politikagintzan izaniko eragina: ukaezina, baita ere, burujabetza-aren inguruko ikuskera denek ez dutela hartzen hizkuntza ardatz gisara. Ez, behintzat, Donostiako maistua egin zuen era fermuan.

Hitzez egin zuen euskararen alde. Eta ekintzez: konpromiso betez. *Alaitz Aizpuru Joaristi* filosofia irakasleak, esaterako, etxean guraso euskaldunetarik eraldun hazi eta euskara berreskuratzeko bereak eta bi egin zituen Alvarez Enparantza gaztearen irudia du gogoan iltzatua -36ko gerra osteko nazionalismo modernoaren gaineko doktore tesia osatzen ari da Aizpuru, eta giltzarritat du Txillardegi-. Francoren diktaduraren urterik beltzenetan argi ikusi zuen hizkuntza gutxietsi haren garrantzia: 1947. urte ingururako Donostian bertan euskara ikasten hasia zela kontatzen zuten. «Bilbora joatean, bere kasara, sekulako lana egin zuen; esaten zuen eguneroko gauerditik goizeko hirurak arte aritzen zela ikasten».

Aberriaren inguruko ideietan aurki hasi zen nabarmentzen gazte bipil hura. «Argi ikusten zuen Euskal Herriaren eta euskaldunen arazoak eta arriskuak nondik etorriko ziren», azaldu du Aizpuru. Eta hizkuntzaren gaineko kezka hasieratik izan zuen presente. Azken amasara arte. Ahots -belanaldi- isilarazi baten eledun aritu zen, hein batean, Txillardegi. «Bere idatzietan behin eta berriz errepikatzen du beraiek oso gatzetatik herri zapaldu bateko kide eta kultura eta hizkuntza ukatu bateko kide ziren sentipen garbia zutela».

TXILLARDEGIK ESANDAKOAK

●●● «Hizkuntza pertsonengan bizi da. *Mendi-gaillurretan bizi direnek* ere, kultura iristeko eskubide osoa dute; eta euskara eragozgarri baldin bazaie jakintza lortzeko, hil bedi euskera. Hobeto esateko: hil dezagun. Pertsonaren loratzea debekatzen duen euskera ahul eta ez-ikasit horri, mendi gaillurretan beretan eustea ez dugu zillegi».

'*Huntza eta hartza*'. (1965)

●●● «Hizkuntza herriak egin du: bere izakeraren, bere pentsakeraren, bere tekniken, bere jiterik sakonenen arabera jokatzu prestatu du. Hain sakonki jokatzu batzutan, hizkuntza-aukerak oharkabeen

bezela nagusiturik baitirudite. Hizkuntza da herri baten sorkaririk funtsezkoena, bere nazio-jakintza-urren oinarria. Hitz batez: HIZKUNTZA DA HERRI BATEN ARIMA. Humboldt'ek egia zuen. Gaurko estrukturalistek berriz ere egia zaharra erakutsi digute».

●●● «Zerk egin du Euskal Herria? Zerk ematen dio bere izakera berezia? Zerk egin du gure naziotasuna? Zerk bizi gaitu? Zerk berezten gaitu? Zerk ematen digu gure euskal arima? Euskerak eta ez bestek».

'*Hizkuntza eta pentsakera*'. (1966)


«Zeren-eta eskola, administrazioa, irratia, telebista, dendak, lantegiak, unibertsitatea, osoki euskaraz itzatea guztiz eta hertsiki beharrezkoa baita euskara atxikitzeko.

Bestela kitto da, eta azkar. Dena ala batere ez. XX. mendean bizi gero, ez Harri Haroan edo Tasmania urrun batetan. Ala Bilboko Gran Via guztia euskaraz ari ikusiko dugu, ala Erriogitiako azken tonforren baserritarrek berak erdaraz entzungo ditugu. Utz ditzagun ametsak, Jainkoarren, alde batera!».

'*Zeruko Argia*'. (1973)

●●● «Frantsesik gabeko Quebec-ik eta flamenkerarik gabeko Flandes-ik ez dagoen bezalaxe, euskararik gabeko Euskal Herri-rik ez dago. Hots, guhaurk behar dugu hori nortu eta obratu gure buruetan. Hau egin artean ez dago ezer ixaroterik geroan, gure amaia ezik».

'*Euskal Herriatik erdial herrietara*'. (1978)



Euskalgintza
Txillardegiren ekarpena

Urte arras zailak ziren. 36ko gerra aurreko abertzaletasunaren oinarriak sakabanatuta zeuden: hautsita. «Mikel Aizpuru historialariak, esaterako, garaia aztertu du, eta azaltzen du erbesteak, haize berriak ekarri beharrean, abertzaletasun modu berri bat ekarri beharrean, lehengo euskalduntasun hori guztiz gotortu zuela, eta abertzaletasun guztiz itxi bat ekarri zuela; Arana Goiren nazionalismoarekiko aldekoa oro ia-ia herriarekiko traiziotzat hartzen zen. Eta lehengo abertzale haiek igual euskara lantzen zuten, baina beren egunerokoa euskarari uko egiten zioten». Eta hortxe oldartu zen Txillardegiz gaztea, abertzaletasunak, izango bazen, euskalduna izan behar zuela aldarrikatuz.

Mugimendu politiko baten barruan tertziatu zuen berehala bere mezua. Jeltzaleen ildo nagusitik urrundu, eta Ekin mugimenduarien bultzatzaileetako bat izan zen Alvarez Enparantza 1952an, ETArek sortzaileetako bat 1958an. Aro historiko horren gaineko doktore tesia egiten ari da Onintza Odriozola Irizar historialaria, EHUKo irakaslea. Igarri egiten du, garai hartako ageritan, Txillardegiren ahotsa; berritzailea, eta zuzena. «Ekinen koadernoetan, 1950eko hamarkadan, ja agertzen hasten da hizkuntzaren gaia; ezizenak erabiltzen dituzte, baina Txillardegik hor da, hizkuntzaren arloan bera zen jakituna. Eta hor agertzen diren ideiak dira euskarak izan behar duela Euskal Herriko hizkuntza bakarra, eta abertzaletasunarekin lotzen dute».

Argi du Odriozolak ez dela ideia berri-berria, baina nabarmendu nahi du ordura arte halako argita-

sunarekin ez zuela inork plazartu: «ETArek euskararen handi bat da sortzen duela gizarte mugimendu bat hizkuntzaren eta euskal kulturaren aldekoa». Horretan Txillardegiren ekarpena giltzarri izan zela dio. «Hark bizi osoan eutsi zion ikuskera horri; koherentzia handia izan zuen. Hain justu, 1963an ETAtik ateratzen beste kide batzuekin batera ez zetorrelako bat V. Biltzarrean hautatu zuten ildoarekin. Uste zuen marxismora asko lerratzen zela ETA». Eta lerro horretan sakonduta, hain justu, hizkuntzaren gaia baztertua geratuko zen susmoa zuen hizkuntzalariak.

Linguistikarrik berrienari so

Linguistika berria deiturikoaren oinarriak 1940ko eta 1950eko hamarraldietan ezarri zituzten korronte estrukturalistek Europan —ordurako erbasteen zebilen Txillardegik; adi-adi beti—, eta hortik edan zuen. «Hizkuntza eta pentsamendua elkar lotuta daudela azaldu zuten, eta hizkuntza bakoltzak gizabanakoei mundu hori interpretatzeko eta pentsatzeko logika partikular bat ematen diela», esplikatu du Aizpuru. Ikuspegi horri lotuta garatu zuen Txillardegik bere pentsamoldea, oso kritiko beti euskara bazterrean lagatzen zuten nazionalistekin. «Esaten zuen bazeudela abertzale batzuk ziotenak inportantea boterea zela, eta behin boterea lortuta, hiztegi on bat hartu, eta joango zirela gero herritar erdaldunen euskalduntzen; baina Txillardegik horrekin asko haserretzen zen. Haren pentsamendua justu kontrako da; behin hizkuntza bat gaitzen bada, gero ez da bakarrik hitzak alda-

ztea, mundu ikuskera konplexu bat gaitzen da. Txillardegik argi esaten zuen hori; hizkuntzarena ezin dela biharko utzi. Hiztegi on bat izan arren, gero ezin da erreperatu edozein modutan».

Existenzialismoak ere eragin handia izan zuen Txillardegiren-gan. Korronte filosofiko horrek



Aurrekoarekin alderatuta —arrazarekin, abizenekin edo leinuarekin— askoz ere irekiagoa da hizkuntzarena»

Aiaitz Aizpuru Joaristi
Filosofia irakaslea

«Euskararen zentralitate berri bat sortzen asmatu zuten; jarraipen bat eman zioten horri, berritu eta modernizatu zuten»

Eduardo Apodaka
Psikologia Sozialeko irakaslea EHUan

«Hara hor euskararen potentzial unibertuala, zoritxarek gubxi arakatu izan dena geroztik»

Imanol Galfarsoro
Giza Zientzietan lizentziaduna

«Ekinen koadernoetan, 1950eko hamarkadan, ja agertzen da hizkuntzaren gaia: Txillardegik hor da»

Onintza Odriozola Irizar
Historialaria, EHUKo irakaslea

norbanakoarenganako itzulerat bat ekarri zuen; haren aldeko aldarri bat —«ni sozial bat, betiere; egungo individualismotik oso urrun»—. Eta Donostiako maiusku kartsu defendatu zuen ikuskera horretan hizkuntzaren garrantzia, norberaren eitean, izea-

raren eraikuntzan, giltzarri dela aldarrikatuz. Estrukturalismoari eta existenzialismoari atxikita, gainera, hauspoa lortu zuen Txillardegik kultura txikiaren alde: «Izan ere, apurto egiten dute kultura batzuk besteak baino aurreratuagoak edo zibilizatuagoak direla dioten ideiek; azpimarratzen dute diferentak direla kulturak, ez hobeak edo garatuagoak».

Abertzaletasun berri baten oinarriak jartzen lagundu zuten Txillardegik eta haren zenbait garaikidek zimendu horiekin. Horren arrastoa oraindik agerikoa dela uste du Aizpuru, eta aintzat hartzeko ikasbideak badirela. «Txillardegik eta orduko abertzaleek ezakaten zieten garai hartakoak izateko, garai hartako beharretara eguneratzen zuten». Aranismo zaharrean ainguratutako «ameskerien» kontrako oihu bat izan zen: «errealitatek soluzioak» emateko politika berri baten aldarria. «Militantziarako» ereduak ere eman zuten. «Harentzat konpromiso bat egon behar du; hautatu egin behar duzu. Horrekin lotuta, herritaritasuna eta euskalduntasuna ere egunero egin beharreko zereginak dira». Hizkuntzari emandako zentralitatearen bidez abertzaletasuna biziberritzeko gakoak eman zituela uste du Aizpuru. «Aurrekoarekin alderatuta —arrazarekin, abizenekin edo leinuekin, adibidez—, askoz ere ire-

kiagoa da hizkuntzarena. Norberaren esku dago; beti ikas dezakezu. Euskalduna da eta euskaldun jaitotzen dena, hautu baten bitartez euskaldun izatea erabakitzen duena baizik». Beti lotu zuen Txillardegik hizkuntzaren aldeko defentsa euskarari behar adinako garrantzia emango zion administrazio sendo bat lortzeko borrokariekin. fermuki. «Txillardegik argi du: euskararen kontua auzi politiko bat da. Heltzen ez diogun bitartean, gainerako teoria guztiak alferrik dira. Kulturalismo apolitikoaren kontrario erabatekoa zen», azaldu du Aizpuru.

Txillardegiren «ikasbidea»

Eduardo Apodaka EHUKo Psikologia Sozialeko irakaslea «ikasbidea» gisara hartu beharrekotzat ditu Alvarez Enparantzak idatzita utzitako pentsamendu asko —«ekintzaren bidez ere erruz erakutsi zuen; militante sularra izan zen— Abertzaletasunaren eta euskalgintzako beste hainbat eragileekin batera, aro oso zailaen aritu zirela oroitarazi du, «oso ballabide gutxiarekin», baina argitasun aparteko bati atxikita. Euskara orenen ardatz jarri nahi zuen nazionalismoaren ideia «buztertu eta ilunduari» amasa berria eman zioten. «Euskararen zentralitate berri bat sortzen asmatu zuten; jarraipen bat eman zioten ildo horri, berritu eta modernizatu zuten». Ikastolen mugimenduen eramuina abian zen, abertzaletasun eta euskaltzaletasun berri baten txinpartak han-hemen baziren, baina Txillardegiren ekarpena aparteko pisua izan zuen giro horretan. «Asmatu egin zuen. Bate-

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

●●● «Euskal Herriak, kondairaren eta soziologiaren maillan, nabarmen, agerian, zalantza-izpirik bate-re utzi gabe, nazio ezaguri bakar bat dauka: euskara; eta nazioatasun-kontzentzia ematen dion soziologi-eragile bakar bat ere: euskera. Euskerak egin du Euskal Herria: euskerak ez bestek. Euskerak bizi du Euskal Herria. Euskerak mugatzen du. Eta Euskal Herria piz badadi, euskerak piztuko du. Politikaren maillan, eta erresumaren maillan, Kondairaren maillan beraz, Euskal Herriak beste nazio-norgarriak baduela esatea, ez da egia. Hizkuntzaz kanpo Euskal Herriak ez du gaur, Kondairaren maillan beti, aberri-norgarriak batere».

●●● «Abertzaletasunak bide mediar eta neketsu bat baizik ez digu zilllegi uzten: euskara egiazko min-

tzabide zoli eta aberats bihurtzekoa; euskara gaurkotzekoa, euskerari benetako balio bat ematekoa. Ez dugu besterik. Euskera bere hortan kondenatua dago; eta bere ez balego, euskaldunen alde jokatzeko, geurk beharko genuke kondenatu eta arbuatu».

●●● «Hizkuntz pizkondean herria bera interesatu gabe, soluziorik ez dagoela sinetsi eta sinestazari behar dugu. [...] Herriak ez badu nahi, herriak ez badu nazio-hizkuntzaren arazoa bere gain hartzen, jai dago».

'Bat' aldizkaria, 1. zenbakia. (1990)

●●● «Hizkuntzen etorkizuna, bestela esanda, *elebitasunean* eta hiztun elebidunen *aukera libroa* uzten zuten elebidunen nagusiaren glotofagiā bedekintzea besterik ez da».

'Bat' aldizkaria, 18. zenbakia. (1996)

●●● «Orain dela ia laurehun urte Oihenartek bildutako atsoitz batetik zioen bezala, «arrauna burutik karasten da»; hau da, arraina burutik hasten dela usteitzen. Honekin esan nahi dut gauzak goitik konpondu behar direla eta ez behetik. Ezin da, adibidez, beheko jendearekin gogor jarri, *goikoarekin* jartzen ez baldin bagara. Hemi hone-tan Bozeramaile Ofiziala eta Unibertsiteateko errektorea eta Hezkuntza sailburua eta abar erdaraz bakarrik bizi badira eta ez bada ezer gertatzen, ondoriozki batere ez, hori ikusten da gure hizkuntza guztiz estratosferikoa dela. Nola jarriko naiz ni gogorrago —Unibertsiteate ipiniko dul kasu— bedelarekin errektoreak ez badu beharko lukeena praktikan jartzen?».

'Argia', (1968)

●●● «Hemen badago ideia faltsu bat, sakonki sartua: gauzak egin behar ditugula lasai, borrokarik egin gabe... Baina ez da egia, kon-tradikzio objektiboak daude. Horretan EAJn oso tipikoa da *deskr-matizar* bezalako hitzak erabiltzea. Baina hau dramatiko da! Ez gara dramatizatzen ari! Euskararen egoera orain dela urte batzuk baino hobeto dagoela? Bai, egia da. Baina euskararen etorkizuna ga-rantzizaluta dagoela... Hori erdaraz bizi den jendeak uste du, baina gu-ri, euskaraz bizi garenoi, ez digute ziriā sartuko».

'Larrun', (2007)

●●● «Ni gogoratzen naiz behin egon nintzela Javier Landaburur-ekin orduan erbasteen zegoen Eus-ko Jaurilartzako lehendakariordea

zen-eta galdetzen zidan: «¿José Luis, no aceptarías tu una Euskadi libre sin euskera?». Eta nik: «¿Pero cómo voy a aceptar una Euskadi sin euskera; eso a mí no me interesa». Eta besteak: «¿Pero cómo que no te interesa?». «Pues claro que no me interesa. Euskal Herria da euskararen herria». Berak ez zuen ulertzen. Eta nik pentsatzen nuen: «Landaburu hau non bizi da? Zer mentalitate dauka?». Eta PNVko jende asko horrelakoa zen. Hau desastrea...

'Gara', (2010)

«Estatu batekin, agian, euskara ez da salbatuko; baina estatutik gabe, ziur ezetz. Estatua edukita, Irlandakoa gerta liteke, baina hori salbuespena da. Espero dezagun gu ez izatea bigarren salbuespena».

BERRIA, (2011)

(Aurreko orrialdetik dator)

tik, ikusi zuen egituraketa sozio-politiko bat beharko zela —independentista zen: goitik behera—; bestetik, euskararen zentralitatearen ezinbestekoa dela».

Giza Zientzietan doktorea da Imanol Galfarso. Erresuma Batuan ari da irakasle, Edge Hill unibertsitatean. 2008an *Subordinazioaren kontra* saiakerarekin oihartzun dezente lortu zuen; ikuskera berritzaile bat ikusi zuten harengan hainbat irakurle eta kritikarik euskal estatugintzari buruzko ideietan eta proposamenetan. Aintzat hartzen du Txillardegik bere garaian eginiko ekarpena: «Hara hor euskararen potentzial unibertsala, zoritxarrez gutxi arakatu izan dena geroztik». Onartzen du, gainera, euskal hizkuntzalariari «zientziasunaren kutsu serioa» emateko ahalegina egin zuela: «Besteak beste, matematikaren erabilerak ikerketari berezko sendotasuna emango balio bezala edo».

Hala ere, estatugintza eduki baten inguruan estuki lotzeari ikusten dizkio arriskuak. «Estatugintza ez da tribugintza», ohartarazi du. «Ongizate publikoa eta unibertsala garatu nahi duen estatua eraikitzeko ez dago nazio kulturaren beharrik». Estatu «demokratiko eta kosmopolita bat» lortzean du jarria gogoia Galfarso. «Naziogintzaren hizkuntza bero eta hurbilaren parean ez daukat inolako arazorik estatuen hizkuntza hotz, neutral eta burokratikoarekin». Uste du Txillardegik ez lukeela guztiz aurka izango horretan. Nekez ahanzt daiteke, ordea, hark tinko eutsi ziola ideia nagusi bati: «Hizkuntza da herri baten arima».

Alor guztietara hedatzeko

Ikusten du Apodakak Txillardiren lorratza egungo politikagintzan. Hitzetan indartsu: «Inor gutxi irajinatu ahal du Euskal Herriaren ideia euskara defendatu barik». Elkintzetan apal: «Politiketan, ez dago horren argi. Egin da oso politika argia euskararen normalizazioaren izenean; baina ez da egin euskara alor guztietan normalizatzeko ahalegin bat». Hor ikusten du aldaketaren premia: «Euskararen aldeko politiketatik pasatu behar dugu transbertsal-tasun batera; pentsatu behar dugu euskara alor guztietan normalizatuta eduki behar dugula. Askotan, euskara partzializatu egin dugu alor jakinetan, eta hori ondo dago, lagundu du, baina beste era batean pentsatu behar dugu». Eta hortxe bide erakusle egokitzat

du Txillardegik: «Hark ondo zehaztu zuen euskaldunok bizi gara erdal mundu batean, eta gure artean erraz asko pasatzen gara elderrara. Horrek esan nahi du euskara partziala dela; beti daukagu erdara modu unibertsalago batean jarduteko». Pentsatzen du hori gainditu egin behar dela.

«Hasi behar dugu pentsatzen nola egin hurrengo urratsa, nola egin egituraketa unibertsal bat euskararentzat». Eta Txillardegiren mezua «abiapuntu» gisara hartuta harago egin daitekeela uste du Apodakak. «Jokatu behar dugu aniztasunen kudeaketan; euskararen defentsa ez da euskararen defentsa bakarrik, herritarren berdintasunaren aldeko borroka bat da», ohartarazi du. «Ez dugu errepikatu behar Txillardegik egin zuena, baina asmatu behar dugu, berak egin zuen bezala, aurrera jotzen; beste testuinguru batean: globalizazioaren aroan». Txillardegik era bereizezinean uztartu zituen bi alorrekin —euskalgintzak eta estatugintzak— lotuta jarraitu behar duten iritzia du. «Orain independentziaren aldeko borroka ezin du baztertu edo bigarren maila batean utzi hizkuntzarena, eta esan nezake aldearantz ere, euskararen aldeko borroka ezin duela utzi alde batera Euskal Herriaren egituraketa politiko-instituzionala».


«Instrumentua» soilik ez

Bat dator Txillardegiren hautuaren gaurkotasuneari Odriozola. Diktaduraren azken urteetan haren mezuak arrakasta handia izan zuela oroitarazi du —ikastolen mugimendua umotzen da, helduak alfabetatzeko egiturak sortzen dira, kultura piztaldia agerikoa da—, eta ondorengo urteetan apaldu egin dela: euskararen «erakundetzearekin». Are gehiago, badira estatugintza edukiz hustu eta euskalgintzaren xedeetatik aparte jarri nahi duten ahotsak. «Iruzurra» ikusten du Odriozolak ikuskera horren muietan. «Iruditzen zait hizkuntzari funtzio instrumentalista ematen badiogu kentzen diogula nortasunean daukan funtzio garrantzitsua. Ez ditu sortuko euskal nortasundun euskaldunak», ohartarazi du. «Euskal estatua edukiz husten baduzu, laguntzen duzu, nolabait ere, eldarak nagusitzen». Eta horren kontra egiteko egokitzat ditu Txillardegiren hitzak eta ereduak: «Nik uste dut haren ikasbideak ez direla boladaz pasatu; eutsi egin behar diogu hark eman zigun ekarpenari. Noski, testuingurura egokitu behar dira haren arrazoibideak».

Txillardegik Jakintza eta ekintza uztartu zituen maisua

A. Iraola

1929an jaio zen Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik, Donostiako Antigua auzoan. Oso gaztean hartu zuen etxeko girotik eraztutako hizkuntzaren kontzientzia —guraso biak euskaldunak zirenen, baina ez zen transmisiorik izan haienean—. Euskalduntzeaz gain, aurki edan zuen orduko linguistikaren korronte berrietatik: euskalgintza eraberritzeko. Politikan ere berehala murgildu zen, era erabakigarrian: 1952an Ekinen sorreran parte hartu zuen, 1958an ETaren hasieran. Presente izan zituen beti hizkuntzarekin lotutako ibilbide akademiko joria —euskara batua sortzeko urratsetan aitzindaria izan zen, eta soziolinguistika gaiak oparo jorratu zituen— eta militantzia politikoa: uztartuta. Literatur lan oparoa ere laga zuen. 2012an hil zen.



TXILLARDEGIZ ESANDAKOAK

- «Beti esan dut, Txillardegik ez dela politikaria, baina Euskal Herriko politikak gaur inor gutxi zor diola gehiago berari baino. Zergatik? Orokorki esateko, Euskal Herriaren ideia berri bat eskertu behar diogu, nik uste. Kontzientzia kultural, politiko, sozial global bat, gero dinamika berri batean bere espresioa izan duena praxi politikoan eta kulturean ere, euskal gizarztean, batzuetan Txillardegirekin, beste batzuetan Txillardegiren aurka ere bai, nahikoa ezagutzen den urteotako historia nahasian».
- «Txillardegik euskaldun fededun esaeerari 'ipuin bat' deritzo, eta euskalduna euskaldun esaeera kontrajartzen dio».

Joxe Azurmendi
"Txillardegiren saila: hastapenen bila". Jakin 114. 1999.

- «Jelkideekin non hautsi zuten ikusteko, Txillardegirengan iraukorak diren bi alor agertzen zaizkigu: hizkuntza eta separatismoa. Hizkuntza dela eta, ez dio lekuri uzten euskarrik gabeko abertzaletasunari. Estatuaren politikari begira, Txillardegik argi dauka euskara desagertzen ari dela errepresioaren bidez, eta beraz, zilegi dela euskarari lehenetsun sozial eta politikoa ematea, berriz ere euskaldun guztien hizkuntza bilaka dadin».

Emilio Lopez Adan
"Txillardegiren pentsaera politikoa". Jakin 114. 1999.

- «Beraren ibilbide luzearen ikuspegia aurrean dugula, erraz uler daiteke Txillardegik gure gaur egungo gizarztean inposatu nahi diguten kontsentsuaren antipodo

detan egotea. Zer kontsentsu-mota inposatu nahi zaigun ikustea besterik ez dago. Izan ere, espainiar estatuaren gidaritzapean, euskaldunen integrazioa da goitik behera inposatu nahi zaigun kontsentsua».

Jose Ramon Etxebarria Bilbao
"Txillardegik lagun giroan". 2000

- «Txillardegik, nahiz eta egitura-zale amorratua izan, ez du euskara komunikazio-tresna huts edo hizkuntza-zeinu huts bihurtu. Euskara askapen-politikaren funtsezko elementu modura intuitu du. Ez du izate nazionalaren esentzian kokatu nahi izan, etorkizuneko preskripzio politiko gisara mantendu baiziki».

Anton Azkargorta
"Txillardegik lagun giroan". 2000

- «Euskara da erdigunea [Txillardegirentzat], euskararen alde egitea da ardatza eta horixe da beste guztia estrukturalen eta azaltzen dituen. Horrela ikusita, Txillardegik esan eta egiten dituen guztiak erlazionatuta daude eta euskararen inguruan kokatu behar dira».

Mari Jose Azurmendi
2004an Txillardegiren omenez Koldo Mitxelena egindako jardunaldietan

- «Azken buruan, sinestarazi digute eta barneratu izan dugu gureak ez duela ezertarako balio. Gutxiestenaren zulotik ateratzeko, Txillardegik dio, uste ustelak alde batera utzi eta euskararen baten harrak ongi ezagutu behar direla aurrerantzean eginkizun praktikoak zuzen bideratzeko».

Pilartxo Etxebarria
"Bat" soziolinguistika aldizkaria 71. zenbakia. 2009

- «Hari eta haren ingurukoei zor diegu euskara ezartzeko herri-gintzaren oinarria. Ordu arteko egitasmoan arraza zen ardatza, eta hizkuntza baztertua eta alde batera utzita zegoen».

Koldo Zuazo
BERRIA. 2012

- «Euskal estatu independentik gabeko euskararen normalizazio soziala pentsatze hutsa zentzugabea da Txillardegirentzat. Baina bera izan zen, inor izatekotan, Irlandako atarramendu hitsa gure artean gehien azpimarratu eta kritikatu zuenetakoa. Ez zuen geroan gerotan utziko zuen hizkuntza-politikarik aditu ere egin nahi».

Jose Manuel Odriozola
BERRIA. 2012